

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Gurutze Gorriak lehendabiziko Belaunaldi-arteko Bizitokiko Bitartekotza Zerbitzua sortu dute

Proiektu aitzindari honen bitartez, zahartzaroari atxikitako bakardadea murriztu eta gazteen emantzipazioa eta elkar-laguntza sustatuko dira

Asteartea, 2019.eko urtarrilak 22

Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Nafarroako Gurutze Gorriak “Belaunaldi-arteko Bizitokiko Bitartekotza Zerbitzua” (BBZ) deritzon belaunaldien arteko bizitoki proiektua aurkeztu dute Iruñean. Orain arte Nafarroan ez zegoen belaunaldien arteko bizikidetzaren eredu honen bitartez, zahartzaroari atxikitako bakardadea murriztu, gazteen emantzipazio-aukerak ugaritu eta belaunaldien arteko harremanak sustatu nahi dira, etxebizitza partikularretan egindako familia giroko bizikidetzaren barnean.



Laparra lehendakariordea eta Nafarroako Gurutze Gorriko zuzendari Juan Jose San Martin, BBZaren aurkezpenean

Bizitokiko Bitartekotza Zerbitzua (BBZ) Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Nafarroako Gurutze Gorriaren arteko lankidetzatik sorturiko programa pilotua da, adineko pertsonen zahartze prozesuei atxikitako bakardadeari eta gazteek etxebizitza izateko dituzten zailtasunei irtenbide berriak bilatzeko asmoari loturikoa. Proiektu pilotu honen kostua 15.000 eurokoa izanen da (gehi BEZ).

Programa honen bitartez, Bizitokiko Bitartekotza Zerbitzua berria probatu nahi da, adinekoak eta gazteak harremanetan jarriz eta belaunaldien arteko bizikidetzaren babestuz eta koordinatuz, zerbitzuak dirauen bitartean. BBZko pilotatze lanek interesdun guztiei irekitako kudeaketa sistema garden eta eskuragarria abian jartzen lagunduko dute, programari buruzko ondorioak biltzen eta etorkizuneko bideragarritasunari buruzko erabakiak hartzen lagunduko duen ebaluazio sistemarekin batera.

60 urtetik gorako adinekoei eta 35 urte arteko gazteei zuzendutako programa

Bi motatako herritarrak izan daitezke proiektu honen onuradunak: Iruñean bakarrik bizi diren 60 urtetik gorako adinekoak eta etxebizitza izateko zailtasunak dituzten 18 eta 30 urte bitarteko gazteak. Salbuespen gisa, gazteen adina 35 urtera luzatu da graduondo, doktorego zein

masterreko ikasketak egiten ari direnentzat.

Hasieran, BBZak gutxienez hiru kasu eta gehienez bost kasu kudeatuko ditu. 2019ko urtarrilean abiatuko da eta lehenengo emaitzak bizikidetza hasi eta hiru hilabete geroago aurkeztuko dira.

Proposamena Iruñean garatuko da, izan ere, horri loturiko arazoak zorrotzagoak izan ohi dira hiriguneetan, adineko pertsoneri eusteko sare sozialik ezaren ondorioz eta etxebizitzaren prezio garestiaren eraginez. Bestalde, Iruñean garatuz gero, parte-hartzaileen eskabide gehiago bildu eta hautaketa egokiagoa egiteko aukera dago, zerbitzuak epe luzean izan dezakeen bideragarritasunari buruzko ondorioak ateratzeko lana erraztuz. Programa pilotuaren emaitzak jaso bezain laster, beste herri eta eremu batzuetara hedatzeko aukera baloratuko da.

BBZ Gurutze Gorriaren “Espazio Aktiboan” kokatuko da, Aralar kaleko 2. zenbakian. Baliabide integral honetan bildu dira Gurutze Gorriak adineko pertsoneri eta hauen inguruneari eskaintzen ahal dizkien laguntza guztiak. Tokiak 600 metro koadroko azalera duen esparru fisiko ireki eta irisgarria du beheko solairuan, oztopo arkitektonikorik gabe. Halaber, esparrua, zerbitzua berme osoz eskaintzeko behar diren baliabide guztiez hornituta dago: irisgarritasuna, ekipo informatikoak, bulegoak, ikasgelak, bilera-gelak, itxaron-gelak eta harrera-gela.

Parte hartzeko betebeharrak

Hauexek dira proiektu honetan parte hartu nahi duten adineko pertsonen bete beharreko baldintzak: bakarrik bizitzea, etxebizitza jabetzan edo errentan izatea eta habitagarritasun zein higiene baldintza egokietan egotea, gaztearentzat egokitutako gela bat izatea, autonomiaz bizitzeko osasun egoera fisiko eta psikiko egokian egotea, alkoholaren eta bestelako substantzien kontsumorik eta adikziorik gabe, eta gazte batekin bizitzeko jarrera egokia izatea.

Gazteen kasuan, emantzipatzeko motibazioa duten ikasleak edo langileak izan behar dute, alkoholaren eta bestelako substantzien kontsumorik eta adikziorik gabekoak, eta adineko pertsona batekin bizitzeko sentiberatasuna eta harekin denbora partekatzearen aldeko jarrera izan behar dute.

Ez da parte hartzeko mugapenik ezarri proiektuaren helburuko pertsonen jatorriari dagokionez, ezta horien egoera administratibo edo legalari dagokionez ere. Halaber, ez da betebeharririk ezarri okupazioari buruz, ezta prestakuntza akademiko edo bestelakoei buruz ere, gaztelaniaren ezagutza maila altua izan ezik.

Programan sartzeko balorazio-iturri nagusitzat erabiliko da elkarrizketa erdi-egituratua eta, behar izanez gero, beste tresna batzuk ere baliatuko dira; hala nola, nortasunari buruzko galdera-sortak, interes eta balioei buruzko galdera-sortak eta hautaketa egokia bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren bestelako tresna balioztatu eta egiaztuak. Hautaketa proiektuko pertsonal teknikoak egingo du, eta bertan, zerbitzua eskatzen duten pertsonak nahiz etxebizitzaren ezaugarriak egokiak ote diren egiaztatuko da.

BBZerako sarrerak hiru fase izanen ditu: Bizikidetza Akordioaren sinaketa, ‘Bizikidetza kudeatzeko eskuliburuan’ jasotako arauari buruzko informazioa eta parte-hartzei zuzendutako formakuntza. Formakuntza planaren bitartez, bizikidetzarako behar diren gaitasunak indartuko dira, ekimena abiatu baino bi aste lehenago. Bizikidetzaren jarraipena egiteko, telefono bidezko zein aurrez aurreko elkarrizketak egingo dira proiektuak iraungo duen sei hilabeteetan zehar.

Programan parte hartzeko eskabideak fisikoki entregatuko dira Nafarroako Gurutze Gorriaren “Espazio Aktiboan”, edo telematikoki, hala eskatzen denean. Eskabideak BBZn jasoko dira fisikoki, edo telematikoki posta elektroniko honen bitartez: sirnavarra@cuzroja.es.